

LEZOKO SAN JUAN BATAIATZAILEAREN ELIZAKO HILERRI ZAHARRAZ

1. SARRERA HISTORIKOA

1399ko eskuizkribu batean aipatzen da lehenengo aldiz "Lezoko eliza", hots, San Juan Bataiatzailearen parrokia ⁽¹⁾ Halere, eliza askoz ere zaharragoa izan daiteke. Eta eliza berbera baino lehen egon zitekeen bertan eraikin paganuren bat (erromatarrena, kristautu gabeko euskaldunena...).

XVI. mendean goitik-behera eraberritu zen San Juan Bataiatzailearen eliza, alegia, pareta zaharrak bota eta berriak egin ziren. Hala, 1545ean lanak gelditurik bazeuden ere ⁽²⁾, 1557an sinaturiko hitzarmen baten arabera Domingo de Juan Sanz Soro hargin maisuak sei urteren buruan bukatuko zituen oraindik egiteke zeuden lanak ⁽³⁾.

Bestalde, San Juan Bataiatzailearen eliza aintzinatik izan zen Lezoko hilerria: Hala, esate baterako, XVIII. mende hasieran eliza barruko ehorzketei tarifa hauxe zegokien, salbuespenak salbuespen: hilotz bat lehenengo hilobi iladan ehorzteagatik sei dukat, hots, kuprezko 66 erreal (garai hartan kuprezko 11 errealek osatzen zuten dukat bat); gainerakoan, kokapenaren arabera, bat, bi, hiru, lau edo bost dukat hilobiratze bakoitzeko ⁽⁴⁾. Elizaren kanpoko aldeko "zimiterio"ko ehorzketei ez zegokien inolako tarifarik; han txi-roak eta ezezagunak lurperatzen ziren soilik.

Baina, elizetan ehorztek osasun publikoan ondorio kaltegarriak zituenez -batipat izurrite garaietan-, 1787az geroztik zenbait errege agindu aldarrikatu ziren ohitura zahar hori baztertuz herrien kanpoko aldean hilerri berriak eraiki zitezten. Lezoko kontseiluak 1806ko uztailaren 13an buruturiko biltzarre orokorrean eztabaidatu zuen gaia, eta San Juan Bataiatzailearen elizari zegokion Roma (Erromaco-lurra) izeneko lursailean hilerri berria eraikitzeko asmoa agertu bazuen ere, inguruko herrien jarrera ezagutu bitartean lanekin ez hastea erabaki zuen ⁽⁵⁾. Hilerri berria edo Kanpo Santua 1823an zabaldu zen. Beraz, San Juan Bataiatzailearen eliza XIX. mendera arte izan zen Lezoko hilerria.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak espediente bati hasiera emana dio Lezoko San Juan Bataiatzailearen eliza "kultur ondasun" gisa kalifikatua izan dadin.

2. ELIZAKO HILERRI ZAHARREKO ZATI HANDIENA SUNTSITURIK

Azken aldi honetan elizako hilerri zaharreko⁽⁶⁾ zati handiena suntsitu da, kalefakzioa jarri eta zoru berria ezartzeko.

1994an eliza barruko zorua jaso zen (ohol eta harlauzak, XVI. mendeko itsasontzi bat zizelkatua zeraman hiliarria barne), eta elizaren kanpoko aldean ezarri pilaturik. Orduan, elizaren erdialdeko azalera guztian zehar aspaldian ehortzitako lagunen hondarrak agertu ziren⁽⁷⁾.

1995ean elizaren erdialdeko hilobi guztiak suntsitu dira, Isastitarren (?) panteoia ezik, inolako indusketa arkeologikorik burutu gabe, eta bertako lurra hondakindegi batera eramana da. Orobat, lur horrekin nahasirik txanponak, eraztun eta bestelako apaingarriak, eta pipa, beira, keramika eta arrosario zatiak galdu dira, besteak beste. Hezur gehienak, ordea, berriro lurperatu dira eliza barruan.

Beraz, lezoarrok aztarnategi arkeologiko bat galdu dugu: herriaren kaxkoan kokaturiko hilerri zaharreko hilobi multzo nagusia, bere ehorzketa ohituren arrasto guztiekin. Eta horrekin batera, Lezoko historiaren garairik ilunenaren informazio iturri bakarra izan zitekeena.

3. KONKLUSIO GISA

Uste dugu hemen, gure Euskal Herrian, eta gure ondare naturistiko-artistiko-historikoarekin egunero egiten ari garen txikizioa penagarria dela, arrunt negargarria, eta denok egin behar dugula gogoeta sakona eta bidea zabaldu holakoak ez daitezzen gehiago gerta, ez Lezon, eta ez inon. "Aurrerapena" deritzon horren izenean makina astakeria egiten ari baikara.

Garbi dagoena da txikizioaren bidetik ez goazela inora, iragana birrinduz ez dugula etorkizun jatorra lortuko. *Zainak moztuta, zuhaitzak hazten ez diren bezalaxe.*

Herenegun indusgailu batek jentilbaratz bat suntsitu zuen pista bat eraikitzeko. Atzo agintariak historiaurreko kobazulo baten aurkikuntza sekretupean gorde zuten hortik igarotzeko behar zuen autobidearen proiektuari trabarik egin ez ziezaion. Gaur aintzinako hilerri baten zati handiena galdu dugu eliza batean kalefakzioa jartzeko. Honela ez goaz inora, eta ostrukarena egiteak ez digu deus konponduko.

Ondo daude pistak, autobideak eta kalefakzioak. Ondotxo dago aurrerapena. Baina ikasi beharko genuke uztartzen iraganeko aztarnak eta oraingo beharrak, batak ez baitu bestea kentzen.

Eta eman beharreko pausu honetaz egin nahi dugu gogoeta. Sakona eta kolektiboa. Ez goaz inoren aurka, guztion alde baizik. Eta Euskal Herriko ondare naturistiko-artistiko-historikoa hemengo biztanle guztiona denez, gurea eta baita biharko belaunaldietakoena

ere, zaindu eta errespetatu beharra daukagu. Eta honegatik, inoren aurka ez goazelako, ez dugu inorekin lehiatu edota komunikatuen gerretan ibili nahi. Orain artekoak ez du itzulbiderik. Biharko egunari begira, kontu eta begirune handiagoz ibil gaitezen denok.

Oharrak

- (1) M. Larrañaga Zulueta, I. Tapia Rubio (1993): "Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479)", Donostia. 80 orr.
- (2) Archivo de la Real Chancillería de Valladolid: 1/11, escribanía Zarandona y Wal/O/C 135-6. L 32.
- (3) Lezoko Udal Agiritegia: E/4/III/1/1.
- (4) Lezoko elizetako maiordomoek San Juan Bataiatzailearen eliza barruko ehorzketen berri zehatza eman ohi zuten garaiko kontu liburuetan, eta 1701eko kontuetan -urte bat aipatzearren- honako hau irakur daiteke hilobieï eskainiriko atalean:

"SEPULTURAS imeramente se abrió una sepultura para Antonio de Echeverria donde se usa pagar tres ducados y por ellos treinta y tres reales de vellon.

Ytem se abrio otra sepultura para Joanes de Yarza donde se usa pagar dos ducados que son veynte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Mariana de Aduna donde se usa pagar dos ducados que son veynte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Marina de Salaberria donde se usa pagar sinco ducados que son sinquenta y sinco reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Magdalena de Arrambide donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Gabriela Sanchez donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Mariana de Arrillaga donde se ussa pagar quatro ducados que son quarenta y quatro reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Maria Roza de Orosco donde se ussa pagar quatro ducados que son quarenta y quatro reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Ysabela de Sanzena donde se ussa pagar quatro ducados que son quarenta y quatro reales.

Ytem se abrieron dos sepulturas para los dos hijos de Ygnacio Arpide donde se ussa pagar treinta reales de vellon.

Ytem se abrio otra sepultura para una criatura de Juanes de Arpide y por ella onze reales de vellon.

Ytem se abrio otra sepultura para Anamaria de Ascorbe donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para una criatura de Domingo Ascorbe donde se ussa pagar tres ducados y la tercia parte un ducado que son onze reales.

Ytem se abrio una sepultura para una criatura de Josepha Picoacarate donde se paga dos ducados y por la tercia parte que son siete reales y medio.

Ytem se abrio otra sepultura para una criatura de Costaburu donde se paga dos ducados y la tercia parte son siete reales y medio.

Ytem se abrio otra sepultura para Ramuz de Michelena donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Joseph de Arpide donde se ussa pagar quatro ducados que son quarenta y quatro reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Bartholome de Bastherrechea donde se ussa pagar quatro ducados que son quarenta y quatro reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Manuela de Salaberria donde se ussa pagar dos ducados que son veynte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para una criatura de Bordalaborda donde se paga dos ducados y la tercia parte son siete reales y medio.

Ytem se abrio otra sepultura para una criatura de Francisco Zavala y pago onze reales.

Ytem se abrio otra sepultura para el hijo de Gabriel de Echeveste donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales.

Ytem se abrio otra sepultura para doña Magdalena de Ugarte donde se ussa pagar seis ducados que son sesenta y seis reales.

Ytem se abrio otra sepultura para Francisco de Aristizaval donde se ussa pagar dos ducados que son veinte y dos reales."

Lezoko Udal Agiritegia: E / 4 / 1 / 2 / 1 .

(5) Lezoko Udal Agiritegia: A/1/1/3.

(6) Hauxe zen, oro har, Lezoko hilerri zaharraren egitura:

- Eliza barrua: alboetako kaperak ospe handiko familientzat, eta sabai azpiko zorua -hierarkikoki antolaturik- herri xehearentzat.

- Elizaren kanpoko aldea: "zimiterio" a txiro eta ezezagunentzat.

(7) Honako hau irakur daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuko txosten batean:

"El martes 18 de octubre de 1994 se recibió en este Servicio el aviso de que en la iglesia parroquial de Lezo se habían levantado la tarima, quedando al descubierto los enterramientos.

Visitada la obra se puede comprobar que toda la parte central del templo estaba ocupada por las antiguas fosas de enterramiento. En conversación mantenida con... nos indicó que la obra iba a consistir en la instalación de calefacción radiante, por lo que era necesaria la destrucción del conjunto de enterramientos. (...)"

1995eko Ekaina
Lau sinadura